

GETXOPHOTO 2020

Kalera!

Iraila 03 — 27

Komisarioa: Jon Uriarte



Nazioarteko Irudi Jaialdia
 Getxo, Euskadi
getxophoto.com

PRENTSA

GETXOPHOTO 2020

Nazioarteko Irudi Jaialdia

Kalera!

Antolatzailea

Begihandi

Zuzendaritza artistikoa

Jon Uriarte

Gaia

Kalera!

Noiz

Irailaren 3tik 27ra

Non

Getxo, Euskadi

Prentsa harremanaetarako

Marina Urrutikoetxea

comunicacion@getxophoto.com

+34 946 576 475

+34 717 705 524

www.getxophoto.com

GP20

Aurkibidea

- 04** **7 ideia**
- 05** **Jaialdiari buruz**
- 07** **Programazio artistikoa
eta erakusketak**
- 10** **Hitzorduak**
- 12** **Online**
- 14** **Snacks**
- 16** **Hezkuntza**
- 17** **Edizio parte-hartzaileena**
- 17** **Lankidetzak**
- 18** **Zuzendaritza artistikoa**
- 19** **Artistak**

7 Ideia

1

Plataforma bat den jaialdia

Pentsaera kritikoa sustatu nahi duen plataforma transmedia izan nahi du Jaialdiak. Bere baitan hartzen ditu erakusketak, webgunea, sareak, topaketak eta argitalpenak. Getxora mundu osoko artista bisualen lanak dakartza gizarteari egungo gaiei buruzko elkarrizketa proposatzeko.

2

Gaia: Kalera!

Jaialdiak **espazio publikoa (fisikoa zein onlinekoa) aztertzea** proposatzen du, protestarako agertoki eguneratu gisa, ikusezin bihurtutako pertsonentzako harrera-leku gisa, elkartzeko eta elkar aitortzeko gune gisa, eta esperimentaziorako, jolaserako eta ospakizunerako eremu gisa.

3

Zuzendaritza artistiko berria

The Photographers' Galleryko (Londres) komisario digitala den Jon Uriarte hondarribitarra, GETXOPHOTOren 14. edizioaren zuzendari artistikoa izango da.

4

Edioziorik kalekoena eta digitalena

Jaialdiak bere edioziorik kalekoena aurkezten du, izan ere, erakusketa ia gehienak espazio publikoan izango dira. Edizio digitalena ere izango da hau, sarerako programa berezia sortu da-eta; Instagram iragazkiak, podcastak, playlist edo performanceak osatuko dute programa hau.

5

Jaialdi hibridoa

Aurreko ediziotan hasitako bideari eutsiz, gaur egungo artistak darabiltzaten medio anitzek ikusi ahal izango dira Jaialdian, hala nola, argazkigintza, bideoa, instalazioak, zinema, alegiazko errealitatea edota arte digitala.

6

Hazten jarraitzen duen jaialdia

Herritarren partaidetzarekin (merkatariak, tabernariak, argazkilariak) eta aldi berean, 40 herrialdetako artisten lanak erakutsiz, Jaialdia haziz doa.

7

Jardueren egitaraua

Publiko ezberdinentzako –profesional zein zaleentzako– diseinatutako makina bat jarduera antolatu dira, esaterako, proiektzioak, umeentzako tailerrak, laboratoriorak, hitzaldiak eta ibilbideak egunez zein gauez herriaren zehar zein hondartzan.

Getxophoto 2020

Jaialdiari buruz

Begihandi Kultur Elkarteak antolatuta eta bultzatuta, GETXOPHOTO Nazioarteko Irudi Jaialdia urtero egiten da Getxon (Euskal Herria) duela 13 urtetik. Helburu nagusiak berberak dira hasieratik: herritar gisa eragiten diguten gaurkotasuneko eta interes orokorreko gaiei buruzko elkarrizketa proposatzea, hiri-espazioak kulturaren arloko erabileretarako berreskuratzea eta formatu, euskarri eta erakusketa-espazio ez-konbentzionalak programazio zorrotz batekin esploratzearen aldeko apustua egitea.

Azken 13 urteetan, **250 artista entzutetsu baino gehiagok** esku hartu du Jaialdian, besteak beste: Martin Parr, Nadav Kander, Naomi Harris, Phil Toledano, Marcos López, Ricardo Cases, Wang Qinsong, Alessandra Sanguinetti, Roger Ballen, Cristina de Middel, Vincent Fournier, Boushra Almutawakei, Pieter Hugo, Jacques-Henri Lartigue, Paul Fusco, Zanele Muholi, Simon Norfolk, Erik Kessels edo Juno Calypso.

GETXOPHOTOren 14. edizioa **irailaren 3tik 27ra izango da**. Edizio desberdina izango da, bistako arrazoiengatik. Covid-19aren inpaktua handia izan da eta oraindik ez dugu hurbiltzen ari zaigun atzeraldiaren neurria ikusi. Zentzu horretan, Jaialdia egoera “berri” horri erantzuten saiatzen da, **edizio parte-hartzaileena, kalekoena eta, aldi berean, digitalena aurkeztuz**.

Ohi bezala, programazioa bi arlo handitan egituratuta dago: erakusketak eta jarduerak, eta aurten, berrikuntza gisa, **online programa bat** gehitu zaie. Erakusketei dagokienez, **GETXOPHOTO inoiz baino gehiago murgiltzen da espazio publikoaren erabileran**, eta ia guztiak kalean programatu ditu, aire zabalean, Ereagako hondartzatik Portu Zaharrera doan ardatzean eta baita Algortako erdialdean ere. Edizio honetan, erabili beharreko espazio berriak gehitu dira, hala nola Correoseko bulegoaren fatxada edo Urgull kaleko udal-egoitza batena. Hogei bat erakustaldi izango dira, edizio honen gaiaren inguruan: *Kalera!*

Jaialdia erakusketak biltzen dituen plataforma bat da, munduko leku guztietako artistei ateak irekitzen dizkien **nazioarteko open call** bat, **hezkontza-programaren** parte diren laborategiak, **programa digitala**, kultura-ekosistema indartzea ahalbidetzen duten kultura-eragile eta erakundeekin lankidetzan aritzea, topaketak irudiei eta lanbideari edo askotariko **jardueri** buruzko hausnarketarako espazio partekatu gisa, partaidetza-programaren parte gisa.

GETXOPHOTOk jaialdi hibridoagoa ere izan nahi du, eta argazkiak hartzeaz gain, bideoa, instalazioa, zinema, errealitate birtuala edo arte digitala ere izango ditu. Eta **jaialdi iraunkorragoa** ere izan nahi du. Barne-hausnarketa batek jasangarritasun-plan bat egitera eramán gaitu, sor daitekeen ingurumen-inpaktua murrizteko. Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzak Erronka Garbia zigilua eman dio GETXOPHOTOri, jaialdi jasangarria dela aitortuz.

Programazio artistikoa eta erakusketak



HOW WAS YOUR DREAM? THADDÉ COMAR

Jon Uriarte hondarribitarra, Londresko The Photographers' Galleryko gaur egungo komisario digitala, **GETXOPHOTO**ko zuzendari artistiko berria da. Programa artistikoa eratzen eta egituratzen duten hogen bat proiektu aukeratu ditu; programa horrek kontuan hartzen ditu munduan une honetan gertatzen ari diren arazoak, pertsonak kalera ateratzen dituztenak. Jaialdiak **espazio publiko fisikoa eta online espazio publikoa aztertzea** proposatzen du, protestarako agertoki eguneratu gisa, ikusezin bihurtutako pertsonentzako harrera-leku gisa, elkartzeko eta elkar aitortzeko gune gisa, eta esperimentaziorako, jolaserako eta ospakizunerako eremu gisa. **Planteatutako gaien artean daude**, bestek beste, **larrialdi klimatikoa, arrazakeria eta patriarkatua**, giza desberdintasuneko borroka zaharrenak eta kezkarrienak.

Identitate borrokei dagokienez, patriarkatu estrukturalaren eta arrazakeriaren aurkako borrokak presente daude GETXOPHOTOn. Adibidez, **Charlotte Schmitz-ek** sexu-langileekin elkarlanean egindako lanean. Artista alemaniarrak argazki batzuk atera zituen La Puente-n, Ekuadorko hegoaldeko putetxerik handiengan. Emakume hauek kameraren aurrean nola agertu erabaki zuten eta euren azazkaletako esmalteekin esku hartu zuten erretratu hauetan.

Felipe Romero Beltránek arrazakeriaren aurkako borroka du ardatz. Espainiako immigranteen aurkako indarkeria polizialean jartzen du arreta *Reducción* serieak. Atxiloketen argazki eszenifikatuak eta poliziaren artxiboetako irudi egokiak biltzen ditu lanak, arrazakeria AEBn gertatzeaz gain gure artean oso presente dagoela ohartarazten digutenak.

Thaddé Comar artista frantziarrak Hong Kongeko 2019ko protestei buruzko serie bat aurkeztu du, manifestarietako linbo postkolonialean sortu dituzten zaintza eta kontrazaintza teknikak ikusteko. Egileak etengabe kontrolatutako gizarteetan manifestatzeko eta matxinadari ekiteko modu berriak aztertzen ditu.

Edizio honen beste helburuetako bat espazio publikoa nola eraikitzen, ulertzen eta esperimentatzen den eztabaidatzea eta kritikatzeko da, bai fisikoa bai online. **Sohei Nishino** artista ospetsuaren *Diorama Map* lanak *collage* erraldoiak biltzen ditu, hiri handien ikuspegi panoramikoak eskaintzen dituztenak, argazki zati txiki eta kontaezinen elkarketatik abiatuta, hiriaren mapa pertsonal eta sentimentala osatuz.

Ildo digitalago batean **Fragmentin** kolektibo suitzarrak errealitate birtualeko 2199 pieza ekarriko du Getxora. Koreografia sinkronizatu baten bidez gizakiak aurrerapen teknologikoen aurrean duen kalteberatasunari buruz hausnartzeko eta kritikatzeko espazio bat sortzen dute.

Koronabirusaren inpaktuaren ondorioz espazio publikoaren eta garraioaren erabilera aldatu egin da. **Michael Wolf-en** *Tokyo Compression* horren adibide handizat har daiteke, pandemiaren aurreko metroko eszenak irudikatzen baititu, gaur egungo ikuspuntutik arriskutsuak eta beldurgarriak diruditenak.

Azkenik, eta 10 urteren ondoren, **Mentalgassi** talde berlindarrak Jaialdia berriz bisitatzen du bere azken proiektua aurkezteko: *Waste Wastes*. Bertan, hondakinen gaia bezain serioa eta konplexua jorratzen dute. Pertsona batek urtean sortzen dituen hondakinen kantitatea ikusarazten dute, Getxoko kaleetan egongo diren zabor-poltsetan aurpegiak inprimatuz.



LA PUENTE. CHARLOTTE SCHMITZ



REDUCCIÓN. FELIPE ROMERO BELTRÁN



TOKYO COMPRESSION. MICHAEL WOLF



HOW WAS YOUR DREAM? THADDÉ COMAR



DIORAMA MAP. SOHEI NISHINO



2199. FRAGMENTIN



WASTE WASTES. MENTALGASSI

Hitzorduak

Opening

Hastera goaz!

IRAILAK 4 OSTIRALA

Jon Uriarte komisarioarekin eta artistetako batzuekin emango diogu Jaialdiari. Guztiek batera ezohiko edizio honen proposamen artistikoen errepasso bisuala egingo dute. Sorpresaren bat egongo, jakina. Adibidez, Helen Levitt mitikoaren *In the Street* dokumental laburra proiektatuko dugu eta Txufo Wilson musikari bilbotarra ere gurean izango da.



Bisita berezia

Lehenengo pertsonan

IRAILAK 5 LARUNBATA

Artistak aurrez aurre entzutea luxua da. Zatoz gurekin txango paregabe honetara. Aurten COVID-19 dela-eta, desberdina izango da. Jende-pilaketak saihesteko, abiapuntu desberdinetatik aterako diren talde txikitik egingo ditugu erakusketak ikusteko bisitak. Horregatik hain zuzen ere, derrigorrezkoa da alde zuzenetik izena ematea.

El espacio público online

Elkarrizketak

IRAILAK 5 LARUNBATA

Elkarrizketak, Jon Uriartek gidatuta, online espazio publikoari buruzkoak. Mario Santamariak eta Hiru Kolektiboak espazio fisiko ukiezina aztertuko dute; Victoria Ascasok eta Estampak pribatutasunaz, intimitateaz, voyeurismoaz eta interneteko zaintzaz hitz egingo dute, eta Blanca Ortigak (Fem Tek taldekoa) eta Jon Uriartek feminismoa eta teknologia izango dute hizpide.

Public Protest Poster

Proiektzio ibiltaria

IRAILAK 5 LARUNBATA

«Iragarki komertzialek menderatzen duten espazio publikoa irabaztea da helburua, posterren inguruan diseinuaren kultura sortzea eta ormetan posterrak proiektatuz zer esana daukan edonori tresnak eta ahotsa eskaintzea». Hauxe diote Raúl Goñik eta Santi Grauk proiektu honen bultzatzaileek. Gauzak horrela, asko dira honezkerok tresna hau erabiliz ehunka poster sortu dituztenak. Eta irudi hauek dira hain zuzen ere, Raúl Goñik berak Algortan proiektatuko dituenak.





Internet Tour

Mario Santamaría

IRAILAK 6 IGANDEA

Mario Santamaríaren gidaritzapean, autobusean igo eta gure e-mailak, mezuak, like-ak eta argazkiak dabiltzan leku hurbilak bisitatuko ditugu, esaterako, Zamudioko Parke Teknologikoa edota Sopelako hondartza. Labur esanda, Interneten egitura fisikoa ezagutzeko talde esplorazio bat egingo dugu.



Autozine

120 battements par minute

IRAILAREN 17TIK 20RA ARTE

Oheak alde batera utzi eta autoan sartuko gara aurten Getxoko Autozinera joateko. Lau egunez *120 battements par minute* (120 taupada minutuko) jatorrizko bertsoan proiektatuko dugu. Cannes-eko Epaimahaiaren Sari Nagusia jaso zuen film frenetiko eta indartsu honek, zalantza barik, bihotza ikutu eta hunkituko zaitu.



Online

Gozatu eduki hauek webgunean baino ez



Radio Ambulante


Zure begiek atsedean har dezaten

Radio Ambulante podcast narratiboa da. Latinoamerikako istorioak kontatzen ditu prentsa idatziaren kronikaren estetikarekin, eta NPR, Estatu Batuetako irrati publikoaren bitartez banatzen da. Hautatu ditugun atal ederrak gozatzera gonbidatzen zaitugu. Atal horiek ikuspegi desberdinetatik aztertzen dute eremu publikoaren ideia. Begiak itxi eta kontakizun hauetan murgildu zaitez.

Estampa. Smile! You are out of Camera

Irribarre egin, kamerak ez zaitu ikusten

Estampa kolektiboak bi proiektorekin hartuko du parte GETXOPHOTO: *3409 Worker*, Jaialdian fisikoki dagoena, eta *Smile! You are out of Camera*, Internet-en baino ez ikusgai. Proposamen biek, makinek espazio publikoaren zaintzan duten garrantziaz dihartute, eta gizartean duten eraginari buruzko gogoeta poliedrikoa proposatzen dute.





Julieta Gil

Aldarrikapen feminista 3Dn

Independentziaren Zutabea monumentuan grafitiak erabili zituzten emakume mexikarrek beren amorrua adierazteko, Mexiko Hiriko lau poliziek adingabeko bati egindako bortxaketa-salaketa baten ondorioz mugimendu feministen haserrea piztu zenean. *Nuestra Victoria* eskulturaren argazki-erregistro xehatu batetik abiatzen da –eskultura zaharberritu aurretik–, eta haren emaitza 3D eredu bat da, artistaren eta Getxophotoren webgunean libreki deskargatu daitekeena.



Playlist

Jaialdiaren soinu-banda

David Bowie eta Kortatutik hasita, Public Enemy edo The Smiths-eraino. Aran Callejak eta Borja Crespok playlist eklektiko bat sortu dute; eremu publikoaren gorespen akustikoa; burutik kendu ezin izango duzun sekuentzia musikala. Eman play-ri, atera kalera eta gozatu!

Instagram iragazkiak

Tuneatu zaitez irteteko

Edizio partizipatiboenean eta digitalenean, uneko ikusizko fenomenoak ikusarazi nahi izan dugu: Instagram Stories-en iragazkiak. Artista digitalek beren sormen-proposamenak bidali dituzte galdera honi erantzunez: zein da zure iragazkia kalera itzultzeko? Bila itzazu gure Instagramean.



Snacks



Edontzi-azpikoen ibildidea

Nola doa hau? Erraz. 6 edontzi-azpikoen bilduma bat da eta taberna bakoitzak eredu bakarra banatuko du. Egizu ibilbidea eta Agnieszka Sejud artista poloniarren *HOAX* serie lortu ahal izango duzu musu-truk.

Tabernak


Algorta: Txinuk, Alkartetxe, Baster Taberna, Etxetxu Berria, Maggie's Farm, Sustrai

Bilbao: Ambigú

Recycling

Poltsak, loreontziak edota sakuak; objetu original eta bakarrak sortzen ditugu Jaialdiaren aurreko edizioan erakutsitako irudiekin. Guztia berrerabiltzen ahalegintzen gara. Info Puntuan eta getxophoto.com webgunean salgai.





Argitalpena

Artista guztien lanak jasotzen dituen argitalpen delikatua, Carles Murilloren eskutik, Jaialdian sakontzeko ezinbestekoa. Info Puntuan eta getxophoto.com webgunean salgai.

Irudi ezkutatua

Hamar urte eta gero Mentalgassi talde alemaniarra atzera dator GETXOPHOTOra. Eta olgetan datoz: irudi bat ezkutatu dute Algotako Metro plazatik 500 metroko erradioan. Aurkitzen baduzu, ez inori esan eta hobe duzu guri getxophoto@gmail.com helbidera idaztea. Asmatzaileen artean 5 katalogo zozketatuko ditugu.



In the Street

Esaten da Charles Chaplin ez zela dokumental hau ikusteaz sekula aspertu eta ikaragarri gustatzen zitzaioala bere protagonistak imitatzea: 1940ko hamarkadan New Yorkeko kaleetan haurrak jolasten. Helen Levitt argazkilari gogoangarriak filmatua, *In the Street* ikusizko entsegu laburra, xumea baina aldi berean zoragarria da, hiriko bizitza eta energia jasotzeko gauza dena.

Hezkuntza

Ibili

Egunez

IRAILEKO LARUNBATAK ETA IGANDEAK

GETXOPHOTO ezagutzeko erarik onena Beñat Romera gure kidearen eskutik erakusketak ikustea da.

Gauetz

IRAILEKO OSTIRALAK

Ilunpean eta eskuargiak baliatuz, GETXOPHOTOk egileen lanetaz gozatzeko beste modu bat proposatzen dizu.

Familian

Mara Mara

Zure bisitarako lagungarriak

Mara Mara proiektu pedagogikoa eta hazkuntza guneak, ume eta familientzako oso material dibertigarria osatu du; galderak, ideiak, jolasak eta Jaialdia beste begi batzuz ikusteko hainbat lagungarri. Material hori Jailadiaren webgunean eta Info Puntuan eskura daiteke.

Detalleres: Letrak

Sormen tailerra

IRAILEK 19 LARUNBATA

Atzera dator Detalleres GETXOPHOTOn familian gozatzeko plan bikainarekin. Jaialdiaren erakusketa batzuk ikusi ondoren eta *The Type Faces* liburua inspirazio iturri bezala hartuta, ilustrazio, collage, etab. bihurtuko ditugu alfabetoaren letrak. Jolas eta esperimentazioaren bidez letren erabilpen berriak asmatuko ditugu.

Getxophoto Por

IRAILEK 12 LARUNBATA, BORJA CRESPO

IRAILEK 19 LARUNBATA, YOGURINHA BOROVA

IRAILEK 26 LARUNBATA, JON MARTIN & JONE URIA

Txango bakarra eta gogoangarria, esperimentu bat. Jaialdiaren lau lagunek euren erakusketa gogokoen zehar eramango zaituzte.

Hamaiketako

IRAILEK 12 LARUNBATA, HELENA GOÑI

IRAILEK 19 LARUNBATA, JAVIER MENDIZABAL

Partehartzaileek *hamaiketako*a hartu ahal izango dute herriko gazte sortzaile hauekin. Asmoa da berba egitea, elkar ezagutu, kezkak partekatu, galdetzera ausartu... Azken finean, "irakasle-ikasle" diskurtsoetik urrundu eta Helena (argazkilaria) eta Javierrekin (skater eta argazkilaria) kalitatezko denbora bat bizi.



Edizio parte-hartzaileena

Une hauetan denok egiten, partekatzen eta begiratzen ditugu argazkiak eta bide horrek eskaintzen dituen aukerak ospatu eta sustatu nahi ditugu. Ildo horretatik, GETXOPHOTOk beti bilatu izan du harreman hurbil eta horizontala bere publikoarekin, eta horregatik saiatu da partaidetzari irekitako leihoak mantentzen eta bultzatzen. Edizio honetan ikus daitekeen adibide bat **Pantaila partekatua** ekimena da. Tokiko herritarrak gonbidatu dira konfinamenduan zehar izandako bideo-deien pantaila-harrapaketak bidaltzera. Horietako 30 batek Getxoko Udaleko komunikazio saileko eraikinaren fatxadako leihoak hartuko dituzte (Urgull 4, Algorta).

Bestetik, GETXOPHOTOk hirugarren **Open Call Internazionale** ere kaleratu du, Jaialdian erakutsi nahi duten mundu osoko artistentzako deialdi irekia. Guztira, 43 herrialdetako 329 proiektu jaso dira. **Emma Lewis** (TATE Modern), **Sarah Leen** (The National Geographic Magazine), **Mirjam Kooiman** (FOAM) eta **Jon Uriarte** (The Photographers' Gallery) argazkilaritza-erakunde garrantzitsuetako pertsona ezagunek osatutako nazioarteko epaimahai prestigiosoa edizio honetan erakutsiko diren 4 lan irabazle aukeratu ditu.

Herritarren parte-hartzea da proposatutako beste ekimenetako bat. Algortako Dendak herriko elkartearekin elkarlanean antolatua, edizio honetan proposatutako gaiaren arabera argazki bakarra bidaliz Jaialdian parte hartu nahi duten guztientzako formatu irekia da. Horietako 40 inguru herriko beste hainbat dendatako erakusleihoetan erakutsiko dira.

Lankidetzak

Jaialdiak bere **lankidetzeta-sarea** hedatzen jarraitzen du, kultura-eragileekin eta **tokiko eta nazioarteko** erakundeekin harreman hurbila eta elkar-trukekoa ezarriz eta, horrela, kultura-ekosistema indartuz. Aurten, besteak beste, Donostiako Kutxa Kultur Fundazioarekin, Italiako PHROOM ikerketa-plataformarekin, PHMuseum argazkilaritza garaikideko webgunearekin edo Picter-en (irudien tratamendu aurreratuko Alemaniako tresna) sortzaileekin ari gara lanean.

Zuzendari artistikoa

Jon Uriarte



Hondarrabian 1979an jaioa, Jon Uriarte Argazkigintza ikasi zuen Institut d'Estudis Fotogràfics de Catalunya eta New Yorkeko International Center of Photographyn. PhotoEspaña eta Madrilgo Europear Unibertsitatearen master bat gauzatu zuen Proiektu eta teoria artistikoetan. Bere lana zentro eta galeria ugarian egon da ikusgai, bakarkako eta talde erakusketetan, azpimarragarriak dira Madrilgo La Casa Encendida, Donostiako Koldo Mitxelena, Nueva York-eko Studio 304, Berlingo HBC zentroa edo Bartzelonako Sala d'Art Jove. Widephoto plataforma independentearen fundatzailea izan zen, eta hiru urtez Foto Colectaniaren DONE kontzeptualizatu eta koordinatu zuen. Egun Londresen bizi da, non The Photographers' Galleryn komisario digital moduan lanean hasi den.

Artistak

Thaddé Comar

Sohei Nishino

Michael Wolf

George Georgiou

Esther Hovers

Felipe Romero

Silvia Rosi

Agnieszka Sejud

Charlotte Schmitz

Julieta Gil

Ilyes Griyeb

Randa Maroufi

Raisa Galofre

& Eva Gjaltema

Victoria Ascaso

Hiru Kolektiboa

Fragmentin

Estampa

Mario Santamaría

Mentalgassi

How was your Dream?

Diorama Map

Tokyo Compression

Americans Parade

False Positives

Reducción

Encounter

HOAX

La Puente

Nuestra Victoria

Ait Ouallal

Les intruses

Stay at Home

Thanks for being You (T4BU)

Radio Farm

2199

3409 Worker

Smile! You are out of Camera

Internet Tour

Waste Wastes



HOAX. AGNIESZKA SEJUD



AMERICANS PARADE. GEORGE GEORGIU



FALSE POSITIVES. ESTHER HOVERS




ENCOUNTER. SILVIA ROSI



INTERNET TOUR. MARIO SANTAMARÍA



RADIO FARM. HIRU KOLEKTIBOA



T4BU (THANKS FOR BEING YOU). VICTORIA ASCASO



3409 WORKER. ESTAMPA

BEGIHANDI

BABESLE NAGUSIA



ERAKUNDE BABESLEAK



BABESLEAK



LAGUNTZAILEAK



KOMUNIKABIDEAK

